

ANAITASUNA

BIZKAIA

181 zenb. 1970, * Urtarrilak 30
Apartado 17 * GALDAKANO

Ez dok amairu

A G I R I A

Jaialdien presentazioetan, esku programetan besteetan, izketaldi eta alkarrikustetan gehienetan, gure eritxi eta nahiak azaltzen ditugu eta honetara jakin erazoten. Baina, gaur bezala, "oroekiko* eritxia" deritxonari agiri bat egiten, lanean lau urtetan ibili arren, ez gara inoiz ager-

tu; izketan asi baino lehen, lanari lotu behar dala lehenik, pentsatzen dogulako.

Aspaldi honetan, gure taldearen gain gauza batzuek gertatzen ari* dira, eta garrantzikoak iruditzen ja-

kuzalako erabagi dogu agiri hau idaztea; ez gure gustura, ezinbestean eta honetaratu gaituelako baina. Gure jokaera eta pentsaera moldea erriari agertu nahi deusaguz jakinen gainean egon daiten, eta orduan juzga ahal izan daian.

Gure jokabidearen barri

Gerla* bukatuta ondorengo utsune iluneko gizartean, gehienak gaizki egokituak gertatzen gara, bera goituteko. Erdi mailako burgesia krisisean amiltzen* danean, hemen pasatu dan bezala, gehiago gertatzen jako burgesia txikiari; eta honen betiko zalantzak* aundiagoak dira bihurtzen: klaseen arteko burrukea mistika berezi batez planteatzea, gizartea bera irauan erazo leikeen egituren aurka altxatzea (nahikoa baita* ilzorlan gertatzea, mundu osoa "progresismoaren" izenean ondatu nahi izateko), eta abar eta abar.

Edozein arlotan, bitxikeria eta zentzubakokeria besterik ez da azaltzen. Esanbeharririk ez da izango noski*, kultureak zerikusirik badaukala egoera osoarekin. Kulturea, beraz*, ez da gizartetik kanpora odeietan* dabilen zerbait "folklorikoa", gizartearen agerpen bat baino; eta ekonomiko-funtsa* indarrerazotzen bada, hain zuzen kultura osoa (gizarte baten nortasuna, alegia*) aurreratu daiten egiten da, eta aitzitik*. Guk gaur, kultureari dagokionan ikutuko ditugu; baina funtsa* gizartean datzala* dakigularik.

Gehiago mintza* daiteke noski; baina ez gatoz problema honetan sakontzera, beretik datorkigun zerbait aztertzea baino. Egoera honetan guri zuzenki doakiguzan ezauzgarri batzuek ekarten gaitue gaur.

Orain dala denbora pixka bat, eta garai bateko joerak gutxien* joiazanean*, euren burua euskalduntzat dauken batzuek, gustatzen ez jakelako, euren menpekoa ez zalako, edo lehen aipatutako izpirituak eraginda, "Ez dok amairu" taldea madarikatu nahi izan eben. Orduan, isiluneko burrukea asi zuten taldeari buruz, Baina denboraldiak danentzat latzak baziran, batzuentzat latzagoak, zoritxarrez; eta orduan, ahalik ezak haren jokaerea isilunetik txarto esakara* aldatzen dau. Ez genduan nahikoa, nonbait, bortxazko isilunearekin; eta beste abotsak altxatu ziran gu "laguntzera"..., ha gehitu baino besterik egiten ez dabela. ("Ezin dogula kantatu, ez ote dakie danak?").

Eta orain, gure taldeko batzuek erderaz asi behar dogula, esaten da; batzuek, kantuetan esaten doguzan aurka bizi gareala, "faltsoak" gareala, alegia*; diruz jantzita ei gagozala, leunegiak, traidoreak, eta abar eta abar. Baina ez pentsa, zuzmur horreen iturburuak aurkitzeko oso urrunera joan behar danik. Geure etxean dagoz, gero!

Lehendik bere, batzuentzat "burges" utsak ginan; besteentzat, berriz, komunistak; hangoentzat, aurririk aundienak; eta hemengoentzat, bildotsik xamurrenak. Gutxi-

rentzat, zoritxarrez, egiazki garezak: danak bezalakoak, alegia* maila guztietan uts eta akatsak daukaguzanak, beste edozeinek ainala edo gehiago (eta ez goaz horreei ukatzera, noski*). Baina askok, gure ekintzea juzgatzean, gure joerea aztertutako baina, antza danez, euren burrukeko egoerak eta grinak azaltzen ditue.

Gizarte batek bizitzeko behar daituan amaika gisako* bideak, ez da errime finkatu behar; batzuek eritxirako, atzerakoiak, salduak, aluak eta beste ei dira lan horreei lotzen diranak. Honegaz, erri batei ezaugarri eta oinarriak ez diralagordę behar esan gura bada, jakindaigun behin eta betirako, holakoa. gura leukeen geroko gizarteak, eaduala ahalmenik izango ezta gizartea bere izateko; eta hori, metafisika eta ametsik* gozoenean bizi daitan nahi kontradiktoria baino ez dala. Gainera, honek beste ondorioak bere ba dakarskuz, gure artean zoritxarrez oso zabalduak dagozanak: demokratiko jokaerari, eza, lagunari errespetorik ez, talde batean lanari lotzeko ahalik ez, eta abar. Eta holan, baten eritxiak, abar bokoak ez badiu betetzen, betirako madarikatua izaten dala gertatzen ari da. Azalezko gauzetan, radikalizazioa; baina, pixka bat sakontzezkerero, krisi, ahulezia* eta gutxiagotasun konplejoa besterik ez.

AMABI ARRIETATIK

Zortzi ilabete terdi Garelanoako espetxean egon ondoren, abenduaren 20-an libre itxi dabe, askatasun kondizionalagaz, Matiena-Abadinoko Angel Gaztelurruia mutil gaztea. Itsasoan egoan soldadutzea egiten; eta barriz bere, haraxe joan behar izan dau.

Abenduaren 21-ean, igande* goizeko 11.30-tan, lehenengoz ikusi genduan Durangon Onatibiaren "Euskal Show" dalakoa, "Lartaun" Oartzungo kantore ta txistulari taldeak eta "Alkartasuna" Pasaiko dntzari taldeak, gure baserri ta kostaldeko bizimodua ta ohiturak agertu euskuezan, abesti ta dantzen bidez.

Jendeak txarto erantzun eban; eta laurehun bat ikusle baino ez ziran egon. Jaialdi honen aurretik, euskerazko meza bat abestu zan Andra Mari elizan.

Egun berean, Elorrioko zinetokian, beste abeslari jaialdi bat egon zan.

Urtero legez, aurten bere, Gabon arratsaldean, Durangoko kaleetatik Jaiotzea ibili zan, bertoko behartsuentzat dirua batzen. Baita eskualdeko* beste auzune ta errietan bere, gazteak Gabon kantak abestu euskuezan, kalerik kale ta baserrikerik baserri, antzinako ohitureari jarraituaz.

Durangon, Gabon Abestien II gn. Txapelketea euki genduan abenduaren 28-an, "Txoritxu Alai" taldekoak umeentzat antolatua. Eskualdeko umeak izan ziran gehienak, baina eskualdetik kanporakoak bere egon ziran.

Durangoko talde bi izan genduzan txapeldun: nagusi txoen artean "Tronperri" taldea, eta gaztetxoeren artean "Txoritxu Alai" taldea.

Zorionak talde biei eta euren gertatzaileei.

Egun berean, arratsaldean, "Txoritxu Alai" taldekoak euren dantza saioa eskaini eben Bilboko Umeen Gabonetako Parkean.

Gabonaldian, Durango ta Igorretako* gazteak, itxurea danez, telebisinoko «viva deportivamente»-ri erantzunaz, futbol partidu batzuek egin ditue euren artean. Baloi otsa baino sarriago, azur otsa euzun zan. Makinatxo bat barre egin eben euren ikusleak. Eta urrengo egunetan, errenez* beterik ikusi genduzan bazterrak.

JOAN ANTONIO AROMA

Arratia

Arratia, beste eskualde* asko legez, konturatuten asi da euskerearen balioagaz.

Aurten, Bilbo ta bere inguruko irurogei gazte euki doguz gure etxeetan, gure izkuntzea ikasten.

ANAITASUNA-ren arpededunak, asko bai asko gehitu dira. Alfabetatze kursoak bere, erri batzuetan egin dira; eta beste batzuetan, egitekotan dabilta.

Baina, halan ta guztiz bere, euskaldun gazte askok, neskak batez bere, euren artean erderaz egiten jarraitzen dabe. Egia esan, gure artean indar ikaragarrikoa dauka harako esakera harek: "Euskereaa diru gehiago irabazteko ez bada, zetarako?" Eta oraindino, zoritxarrez, arratiar askok honantxe pentsatzen dabe, 1970-ko urte barri honetan.

ZAMAKOLATARRA

Gaztetxoeren jaia, Zeanurin

Urte barri honetako lehenengo igandean*, jai polit bat euki genduan Zeanuriko errian, bertoko talde bateko neskato-mutikoak eraturta. Talde honen izena, "Danok Bat" da. Guztira, 24 neskato-mutiko dira, 12-tik 16 urterainokoak. Gabonetako oporretan, behar asko egin behar izan dabe, jai hau egiteko.

Jaia, zati bitan erdibituta egon zan. Lehenengoan, neska-mutil bik, tarteka, Urte Barri zorionsu bat opatu euskuen bertotan, eta loa alde batera ixteko eskatu. Benetan be, etorkizun aundiko bertsolariak dira gazte honeek. Abesti modernuak ikasirik, zaharrak ahaztu bage. Jarraian, nahiz eta aspaldi honetan Zeanurin txistularirik ez egon, txistulari gazte asko agertu ziran, soinu politik joaz. Azkenez, gabon otzara eder baten sariketea egin zan. 1743 zenbakiak urten eban, eta saria Bilboko gizon bateri tokatu jakon.

Jaiaren bigarren zatian, "Aingira Kumeak" antzerkia egin eben neskato-mutikoak. Beharra polito egin eben, eta txalo asko jaso be bai. Gero, ohi dan legez, "Agur Jaumak" kantatuaz amaitu zan jaia.

Jaialdi hau, erriko Eskola Profesionalean egin zan. Eskola honetan, hainbeste urtetan emon zituan bere irakas-taldiak Martin Orbe abadeak, orain Zamorako espetxean dagoanak. Jende asko egon zan, Arrati alde guztitik etorrita. Eta presentatzaileagandik entzundako berba honeek ez dai-tezala inoiz ahaztu nahi geunke: "Zeanuritar guztiok, zahar eta gazte, alkatu gaitazan, ikusiezinak alde batera ixita, erri zentzuzkoa ta polita egiteko. Horrexetarako eskaintzen" gara "Danok Bat"-ekoak.

AIZARNATARRA

Markina

Ez dira urte asko, Markinan usadio zahar atsegingarri bat galdu zala: Gabon gauean kalerik kale abestuten ziran "Marijesak". Gabon kanta horreek, Markinako kaleetan joan-etorri pozgarrian, euskal kutsu* ta jatorriasuna eroaten eben euskaldun familietara.

Abeslari talde polit bat, oraintxe sortzen ari* da; eta lehengo usadioko "Marijesak" barriro be entzuteko ustean gagoz datorren urterako.

Aurten be, urtero legez, kalejiran urten dabe gazteak, neska-mutilak. Burditxo baten, Jaiotza bat antzestu dabe, euren taldeko lagun bik San Jose ta Ama Birjinearena egiten ebela. Holan, Gabon kanta politikaz, alaitu egin ditue Gabonak. Jazoera batek ilundu dau euren ibilera jator hori. "Ondo eginaren pagua, ate ostean palua", esaten ebeii gure zaharrak. Hauxe jazo zan hemen. Ibilaldia amaitzean, neska-mutilak katean eta kantari etozan. Guardazibilen aurretik igarotzean, mutil bat eta neska bat artu euren kontura, eta mutilari kristorenak emon ei eutspezan.

Sariketak

"Markina aldeko baserriak" gaitzat artuta, lehiaketa* bat antolatu zan hemen. Lehiaketako oinarrietan, lana euskeraz nahiz erderaz egiteko aukerea emon zan. Gai polita ta interesgarria izan arren, gutxi izan ziran lehiakideak, eta ia danak erderaz egin eben. Bost lan, lau erderazkoak eta bat euskerazkoa. Euskeraz agertu zan lanak eta bere egileak, ANAITASUNA-ko orrietan agertzea merezi dabela uste dot. Akats txiki batzuek gora-behera, oso ondo ta txukun egindako lana. Ea urrengo baten agertzen dan ANAITASUNA-n.

Beste lehiaketa bat, Markinako "Gazte Alaiak" Auñamendi argitaldarekin batean antolatua.

Lehiaketa honetan 50 itaun egiten dira. Markina ta inguruko errien kondairea* ta beste jakingarri asko sartzen dira itaunen artean.

Sariak, euskal liburuak-eta dira. Liburu gehienak, "Auñamendi" bildumakoak*.

Sariketa honetan be, erantzunak euskeraz nahiz erderaz emon leitekez; baina euskeraz erantzuten dauanarentzat sari berezi bat dago eskainita*.

Gure errietako kondairea ta usadioak ezagutzeko, bide onera jo dabe Markinako "Gazte Alaiak".

IRUKOTE

Arbazegi-Gerrikaiz

Gaurko honetan ez dot luze eskribiduko, nahiz eta emongo dodan barri honek hori merezi. Arbazegi-Gerrikaiz-en alkate barria daukagu. Lehen, Iñaki Artiatx jauna genduan alkate, orain Ameriketara doguna. Eta Iñakiren orde, Jose Alzaa "Naparra" jarri deuskue alkatetzan. Iñakiri, espero eban lako bizimodua opa deusagu Mexicon; eta Naparrari, behar dan moduzko alkatetzaldia errian.

ERRAMON GERRIKAGOTIA

Mundu mindua

Urte zaharra pasatu barria dan memento* honetan, komenigarri da, geldiune bat egin eta atzean gelditu dan politika bizitzeari begirada bat egitea.

Mundua, gizarte bizitza aldetik artaga ta arriskuz beterik dago; politika aldetik, ostera, minduta, gaixorik, Gaurkoz, itxi daiguzan alde batera nazino bakoitzaren barruan diran gora-beherak. Itxi daiguzan indar aundiko nazinoen arteko influentzia barrukak, eta euren interes alkartu ezinak. Itxi daiguzan, era berean, oraindino zutik irauten daben gobernu gaiztoak, euren jokabidean zuzentasunaren kontra diarduenak.

Beti bezala, gerrea da munduko gertaerarik madarikatuena, bai politika, bai gizarte eta bai ekonomiaren aldetik.

1939-garrenean fazista sistemak sorturiko gerrea amaitu zanean, askok uste eben, barriro ez zala gerrarik inon sortuko. Ta, egia esan, ez dogu izan "gerra aundirik" edo gerra mundialik, 1945 gn. urtetik gora. Gehiago, memento* honetan, munduan diran potentziarik aundienak, Helsinkin alkarturik, gerra nuklearrak zelanbait baztertzeko bideak atontzen diardue.

Baina "gerra txikiak" ez dira aldenitu, eta bai ugaritu ta gogorragotu. Gerra honek izan dira, joan dan urtean mundua mindu dabenak. Kolonialismoaren ondorenak dira, neokolonialismoarenak hain zuzen bere. Gerra honek, erri indartsuak egiten ditue euren lehenagoko kolonien kontra. Edo nazino barriak alkarren aurka, euren frontera faltsoak, euren erritar banatuak, euren aberastasun txarto erabiliak dirala kausa.

Asian, Vietnamgo gerrea aurrera doa, memento honetan gogorkeria aundiago bategaz, alderdi bateko burrukalaria egindako ilketa ikaragarriak jakin egin dira ta. Laos-en eta Cambodiaren bere sartu da: kmer izeneko kultura aundia zabaltzen dan lurralde osoan. Kultura honexek alkartuko zituan inguru hatako errialde guztiak, frantsesen denboran muga guzurrezko batzuek jarri ez baziran.

Urbileko Sortaldean, arabiarak eta israeldarrek geroago ta gogorrago dabilta.

Afrian, Nigerian, gerrarik izugarriena ikusi dogu orain-tsu arte. Congo biak, "noiz etengo" bizi dira: Kinshasa-koa (ex-belgikarra) eta Brazzaville-koa (ex-frantziarra). Tchad-en, benetako gerra zibila dago, Frantzia bera be tarteko dala; egoera madarikatu hau, oraintsurengo salatu dabe Frantziako egunkariak.

Ego Amerikan, "Futbolaren gerrea" deritxona be ikusi dogu, Honduras eta El Salvadoren artean. Gerra honetan, barren-barreneko arrazoiak, ekonomikuak izan dira; eta Ipar Amerikako konpainia aundien geriza baltza ez da urrun izan.

Bazter guztietan, gizonaren bizitza haintzat artu barik, biolentziaren atzaparretan. Zibilizatuak deituriko nazinoak, patxadan isilik, tarteko ez diranetan. Mundua mindurik dago, gaixorik. Baina makaltasun hori ez da betirakoa. Krisi batzuek dira; ta krisi horreetatik urtendakoan, egoera jatorrago batera joango gara: aberastasanak gehituaz eta gizonen bizitza anaikorrage eginaz. Ta horretarako egiten diran ahaleginak, geroago ta ugariago diran ezkerro, espe-rantzta gehiago emoten dabe.

IBAR

Biafren ondamena

Benetan barri penagarria, Biafraren ondamendi tristea. Hainbeste neke, hainbeste min eta eriotze, alferrik izan dira Biafratar gizaixoenzat.

Soegile* batzuek dinoenez, gerra ikaragarri honek erio-tze gehiago egin ditu urte bitan, zortzi urteko Vietnameko guduak baino.

Gosez eta midiku laguntzarik ezaz, aurrak* milaka il dira Biafra zoritxarrezkoan.

Ibotarrak, argiak eta bulartsuak izan arren, ezin ahaur-pegi emon izan deutsoe Nigeriako armadeari*, Afrikako indartsuenerikoko bat berau baita*. Biafrakoak, kanpokoen laguntzarik bage, ondatu egin behar ziran, ezinbestez, burruka desbardin honetan. Orain ez dabe eskapatzerik. Euren etsaien* eskuetan gelditu dira; eta honek ilketa gorri bat egingo ote daben bildurrez dago mundu guztia.

Arrazoiak nok? Oso barri gutxi jakin dogu, gudu honen zegaitari buruz. Ibotarrak euren burua maneatzeko eskua lortu nahi eben, Nigeria Estaduaren aurka. Baina honek, hareen kontra, gogor egin eban. Nigeriakoak, 1967 gn. ur-

YUGOSLAVIAKO NAZINO-IZKUNTZAK

Kroazian "deklarazinoa" zer dan galdetu ezkerro, munduan deklarazino bat baino ez balego lez erantzungo deutsue. Izan be, Kroazian izen hori daroan agiri inportante bat dago, intelektualak kroaziar izkuntzearen alde 1967-ko mar-txoan egindakoa, alegia*. Deklarazino honegaz asten dira, Yugoslavian, gerra osteko nazino-burrukak.

Serbiak eta Kroaziak ditue Yugoslaviako kultura na-zionalik andienak, nazinorik andienak be biok diran lez. Bion izkuntzak eslabikuak dira eta horregaitik antz andi-koak, eslabiku guztiak lez. Kroaziarrak, halan be, serbia-rrak baino literatura zaharragoa ta ugariagoa dauke. Mendebaleko* latin-influentzia garbi garbi agiri jako literatura honeri. Gutenberg il eta 30 urtera, ba eukan Kroaziak bere lehenengo inpretea.

Yugoslaviako Demokrazia Erritarrak, hainbeste nazi-notasunez egindakoa izanik, ez dauka Erresuma edo Estadu guztientzat balio dauan batasun-izkuntza natural bat, lau baino: serbiera, kroaziera, eslobakera ta mazedonia. Iz-kuntza nagusi bat euki gurarik, Yugoslaviak "serbo-kroa-ziera" autatu* eban; baina, bide batez, izkuntza guztien beregaintasun edo soberania aitortzen* ebalarik. Serbo-kroaziera ez da, teorian behintzat, ez serbiera ta ez kroa-ziera. Baina praktikan serbiera utsa da, intelektualeen dekla-razinoan irakurten danez. Zera irakurten da deklarazinoan: Alderdi Komunistearen aldizkari ta egunkarietan*, albiste-agentzia Tanjug-en, irratian, administrazino guztian, tren-etan, politikazko ta ekonomiazko literaturan, diplomazian ta politikazko erakundeetan* eta abar, serbiera utsa egi-ten da!

Armada*, esaterako, serbiera egiten da Yugoslavia guztian, eta gazte danak joan behar dabe armada. Bos-niako eskoletan, umeak kroazieraz egindako idazlanak ez-egindakotzat ixten ziran.

Holan ba, kroaziar intelektualak egindako protestea, beste nazino guztietakoak be bardin egin eikeen. Ta horre-gaitixek izan ziran hain gogorrak deklarazino honek sor-tutako zaratak. "Telegram" kultura-aldizkarian agertu zan deklarazinoa; egun bi geroago, "Vjesnik" astekari komu-nistek lau aizeetarako zabalkundea emon eutsen. Aserratu egin ziran serbiarrak aserratu; baina, ordurako, Kroaziako Alderdi Komunistea be su artuta egoan. Alfer alferrik izan da, deklarazinoa izenpetu eben-intelektual eta irakasleak Alderditik kanpora jaurtigitia.

Ez dau merezi Yugoslaviako izkuntza arazoak luzeago jarduterik. Zaraton barri, sarritan ikusi geinke egunkaria-tan*; eta etorkizunean be ikusiko dogula esan leiteke. Baina aurreko artikuluak ahaztu barik, esan egin behar da, Yu-goslaviako Demokrazia Erritarrak egitura edo estrukturazko gatx gogorrak daukazala. Eta Estaduaren egitura ustel horrexerri zor jakola hainbat ekonomiazko, politikazko ta kulturazko ezbardintasun eta injustizia.

Holantxe ulertu dabe kroaziarrak: izkuntzearen aldeko burrukea, egitura okerraren aurkako burrukea dala.

JOSE AZURMENDI

tean, ilketa aundi bat egin eben, Assaba uriko gizonezko guztiak il zituenean.

Biafrako gobernuak (1968-ko otsailean) laguntza eske jo eban ONU-gana, ezer bere ez jaritxi barik. Harrezkero Biafratarak bakar bakarrik gelditu ziran, Tanzania, Gabon, Marfileko Kosta eta Zambia apartatuta, beste Estadu batek bere onartu ez ebalako. Mendebaleko* Estaduak ikusi eta itu egin eben, euren interesak bakarrik begiratuaz. Beti bezala, iskilo fabrikanteak euren maika egin eben, alderdi bieie armak salduaz.

Orain, dana dago bukaturik. Garai ilun honetan, "Le Monde" egunkarian* agertutako editorial batek izenburu samin hauxe ekarten eban: "Une grande solitude" (bakar-tasun aundi bat). Egia da. Gertaera honen ikusgarriena, Biafraren bakartasuna da. Baita nazinoen burukoikeria bere.

Zelan itxi dabe alferrikako triskantza hori egiten? Ba dago horretarako nazino arteko dotrina bat, "ez sartzeko" izena dauana: "Estadu bat beste Estadu baten barru-ara-zoetan ez da sartu behar".

Dotrina honen izenean, zenbat eta zenbat gogorkeria egiten itxi dan, azken urte honetan! Nire ustez, gauza bat ikasi geinke gertakari honetan: horrelako burrukak lehen bai lehen amaitu eragiteko indarra nahikoa daukan nazino arteko armada* bat laster beharrezkoa dala.

Bestela, "ez sartzeko" dotrina astakeria aundia da, besterik ez.

KARLOS SANTAMARIA

HANDIK ETA HEMENDIK

San Adrian, Nafarroako erririk prestuena da kontserbagintzan. 1920-an, 1.600 bizilagun zituan; eta gaur egun, 4.500 baino gehiago. Iberiako Peninsula guztian egiten diran esparragu edo frantses porru guztietatik 100-eko 50, San Adrianen egiten dira. Urtean 500 miloen balioa jokatzeko da hemen; ta bertan lanean dabilzkanak, 2.000 dira.

Santos Begiristain, abade nafarra, Ministerio de Información y Turismo-ko erlejinoko kontseilari izentatu dabe. Abade hau euskotarra dala entzuten da.

Irunen, urte barrietan asita, euskerazko meza bat egongo da, larunbat* eta jai bezperetan, iluntziko 8.30-etan.

Donostian, itzaldi interesgarri batzuek egon dira urtarril honetan, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País-ekoak modu honetara antolatuta: «La reforma tridentina en San Sebastián», Ignacio Tellecheak, «Xenpelar eta bere nortasuna», Antonio Valverde, euskeraz, «Responsabilidad de la destrucción de San Sebastián en 1813», Juan Bautista Olaecheak, «Bases históricas para una posible renovación urbana de la Parte Vieja», Juan Manuel Encio, eta «Los cien mil hijos de San Luis, el castillo de la Mota y el versolari navarro Bordel», Antonio Arruek. Aire zaharreko gaiak; baina interesgarriak ez diranik ezin esan geinke.

Baztango Oronoz-Mugairen alkartu ziran «Mendiko Mutilen Bilerak» izeneko bazkideak, jaialdi bat eginaz. Ehun bat neska-mutil ziran, guztiak «emigranteak», Landes eta Alpes-etako mendi ta zelaietan lanean ari diranak. Uztapide ta Lasarte egon ziran bertsoetan. «Unai» bikotea, kantari. Tabera kardinala, mahaiburu. Roman Apezetxea, Almandozko erretoreak, itzaldi bat egin eban, Baztan aldean industriak jaso behar dirala esanaz, gazteak bertan lan egoki bat izan daien, emigratu beharrean. Gauza tristea, izan bere, nafarrak erbestera joan beharra izatea.

Elgoibar aldetik Marixabelek dinoskunez, Markox Amundarainek «Emakumeak liturgian» izenburuarekin idatzitako lana asko aipatua izan da euren artean.

Villafrankan, joan dan abenduaren barruan, berbaldi jakin-garri batzuek emon dira, euskal elerti*, historia eta ekonomiari buruz, Pako Garmendia, Jabier Meabe eta Federiko Zabala izlari ziralak. Euskeraz egin zituen euren itzaldiak. Era berean, euskal disko ta liburuak salgai egon ziran.

Azpeitiko Eskola Profesionalean alfabetatze kanpaina asi da, asteke astelehen eta astearte* guztietan, iluntziko 8.30-etan.

«Agerre» I arrijasotzailearen egitadak, laburriko esanda: 150 kiloko arria, ordu erdian, 78 bider jaso eban lepora. Eibarko Ipurua zelean, 138 kiloko arri kubikoa, 11 bider minutu batean. Hernanin, 175 kiloko kubikoa, lau bider minutu batean. Aizarnazabal, Esmoldeko arri famatua, 195 kiloko, bi bider. (Arri hau, Urtainek be ez dau jaso). Azpeitian, 188 kiloko kubikoa jaso eban, mundu guztia ikaraz itxirik. Azpeitian bertan, 200 kiloko rektangularrak, 8 bider 7 minutuan. «Agerrek» ez eban inoiz kontrariorik euki.

Iruñean alkartu dira, urtarrilaren 10 eta 11-n, JOC-eko ekin-tzaileak, lau euskal errialdeetatik etorriak. Gogotik aipatu ditue, Euskalerriri ondotik ikututen deutoen arazoak. Azken urte honetan, JOC edo Jeventud Obrera Católica dalako honek, lehen baino egokiago darabil esku artean euskal errealdetako osoa.

Aguirretxe fraile frantziskotarrak zuzendurik eta Kontzilioaren irakatsiak gaitzat arturik, berbaldi batzuek emon izan dira Bilbon abadeentzat, euskeraz, joan dan urtarrilean.

Laburdiko Hazparden huelga bat izan da, behargin bat lan-tegitik etxera bota dabelako, ondo portatzen ez zala ta. Langileak, alkar arturik eta laguna defendidu nahiez, huelgan jarri dira.

Hazparne oso famatua da zapatagintzan; eta Ipar aldeko Euskalerrian dagoan erririk indartsuenetakoa da.

Urtain ukabikariari, «Vida Nueva» aldizkariak dinoanez, fedeak ea zer dan preguntatu deutoe. «Inori minik ez egitea» erantzun ei dau. Sinestu ezina.

Tolosan, igaro dan Donestebe egunean, abenduak 26, antzetzua izan zan, Iparragirre saloian, Ignacio Begiristainek egin eta 1969-ko Agora saria irabazirik «Bizia, bizi truk» antzerkia. Antolatzaile ta antzelari, «Oargi» taldekoak izan ziran.

Azpeitian, «Soreasu» saloian eta «Antxieta» taldekoak eraturik, euskal kantarien saio bat egon da, igaro dan abenduaren 28-an. Parte artu ebenak: «Zubiz», ormaiztegitarrak; «Itxaropena», legazpiarrak; Jose Maria Larrañaga, mondragoetarra; «Ameslariak», bergaratarrak; Jabier Madina ta «Unai», azpeitiarrak. Iñaki Linazasorok jardun eban presentadore bezala.

Euskaltzaindiaren etxea barrizatzen asi dira. Sortu zan ezkerotzik, hantxe dago Euskaltzaindia, Bilboko Ribera kaleko etxe zahar baten. Oso itsusia da, Euskal Akademia holako etxe zahar baten egon beharra, batez bere Bilbo moduko uri aberats baten. Orain, barrizatzen asi dira; eta, berba bitan esanda, dirua behar da. Ez ote dau Euskalerrri aberatsak diru hori emongo? Lotsagarria litzake.

Zuzenbide honetara bidaldu zeinke dirua: Academia Vasca, Ribera, 6, Bilbao. Modua: eskuz, txekez, bankuz (Caja de Ahorros Vizcaína, Caja de Ahorros Municipal, Caja Rural, Caja Laboral, Banco de Vizcaya, Banco de Bilbao, Banco Guipuzcoano, Crédito Navarro), nahiz jiroz.

Eta gure laguntasunagaz etxea barrizatutakoan, bertako «gi-roa» bere barrizatze eskatuko dogu.

Jose de Arteche, eskritore entzutetsuak, «El paisaje de Guipúzcoa, visto por los pintores» gaitzat arturik, itzaldi bat emon eban Zaragozan, urtarrilaren 26-an. Berbaldi hau, Zaragozako Diputazioak eratu eban. Gipuzkoako Diputazioak Lehendakaria bertan egon zan, ta baita Diputazio bereko txistulariak eta Coro Easo-ko abeslariak bere.

Bilbo

Alfabetatze Kampania, Santiagon

Santiagoko parrokiaren egiten diarduen Alfabetatze Kampania, lau taldeetan banatuta dago: bat, euskeraz ez dakien gaztekoen taldea. Beste bi, euskeraz ez dakien nagusien. Eta beste bat, euskeraz dakien taldea (7 lagunekoa). Zoritxarrez, asieran baino jende askoz gutxiago dabil.

Abadeak abadetzea lagatzen

325 abadek itxi deutoe euren abadetzeari, joan dan urtean, Espainia osoan. Eta abadetzeari ixteko behar dan dokumentazioa egiten diarduenak, 100-eko 1,76 dira.

EUSKERAZALEAK

Alkartearen batzar nagusirako deia egin dabe Otsailaren 1-erako, eguadiako 12-etan, Bilboko Santiago Apostolean. Batzar honetara bazkideak bakarrik joan daitezke. Zuzendariak barrizatutako diranez, Batzordeak gizon honek proposatzen ditu: Jesus Oleaga, Lehendakari. Jose Antonio Montiano, Lehendakariordeko. Iñaki Egurrola, Idazlari. Jesus Maria Makua, Diruzaina. Eta beste 17 burukide honek:

Juan Ramón Urquijo
Adrián Celaya
Julia Berrojalbiz
Miguel Ángel Astiz
Xabier Peña
Leopoldo Zugaza
Carmelo Echenagusía
Elisabet Elguezabal
Eusebio Alcoeta

Octavo Izaola
Miguel Unzueta
Miguel Arandia
José Luis Goti
Jon Malaxehebarría
Lurdes Municha
Felipe Goyenaga
Julían Herrero

Dibortzioa, bai ala ez

Antza danez, Italiako gobernua laster lege bat aterako dau dibortzioari buruz, ta ba dirudi onartuko dauala berau.

Italia osoan, batez bere katolikuen artean, sekulako iskanbilak* asi dira, hau dala ta. Gure artean bere, hango arazoan oihartzuna* bezala, zenbait* zurrumurru eldu dira.

Erromako Aita Santuak, eta berekin batera Eliza osoak, beti kondenuatu dau dibortzioa, ezkontza austeak. Ezkontza ezin daiee ezkontzearen buztarria apurtu, biatariko bat il arte, sakramentu bat dalako. Hau Kristok berak dino, ta aldaezina da. Alferrik da honen aurka joatea, katolikutasunak ez baitau* hau inoiz onartuko.

Baina hau, katolikuen problema da, ta ez bestea. Zeren izenean lotu behar da gizarte oso bat katolikuen esanetara? Zegaitik obligatu behar dira betiko, sinesterik ez dauken pertsonak? Non dago hemen, hainbestetan aipatutako "erlejino askatasun" dalako hori? Non bardintasuna?

Oraingo pausu hau baino lehenago, Italiako gobernua beste batzuek egin zituan adulterioaren auzitan. Honetan, orain Espainian bezala, izugarriko ezbardintasuna egoan gizonaren eta emakumearen artean. Hau da: andra batek ezin eroan eikean bere senarra tribunaletara, beste andra batekin ebilelako; baina gizonak bai, bere andrea beste gizon batekin oheratzen bazan. Ezbardintasun hau behin betiko amaitu erazo eban Italiako legeak, adulterioa legez zigortu behar ez dan pekatua zala erabagi ebanean. Kontzientziak berak euki behar dau horretan bere erantzunkizuna, ez gizarzteak ez legeak.

Antza, urrengo pausua dibortzio legea izango da. Honetan bere, askatasuna behar da. Jakina, katolikuentzat dibortzioa "pekatua" izango da beti; baina ez dago zegaitik juzgatu behar mundu guztia, norbere moral balioetatik.

Dibortzioa pekatutzat daukenak, katolikuak eta abar, ez daitezala dibortzia; baina ez kendu eskubide hori, sinesmen hori ez daukenei.

Dibortzioa ez da lege baten ondorioa. Familiaren eta ezkontzearen apurtzea ez da sortzen dibortziotik; dibortzioa, familiaren eta ezkontzearen apurtzeak berak sortarazoten dau.

Leku guztietan ikusten dira ezkondu zorientsuak, inoiz euren ezkonkideengandik iges egingo ez dabena, nahiz ta dibortzio legeak egon horretarako euren Estaduetan. Alkar bihotzez maite dabena ez dira dibortzitzen.

Bestetik, alkarrerri gorroto deustoenak, nahiz legez ezin dibortzia,

Ta Elizearen Kolejioak, zer?

Han, hor, hemen, geroago ta argiago agertzen da, Elizearen kolejioak ez dagozala gure Erriari dagokionez eratuta, Elizearen dotrina ez dabelako haintzat artzen, ume ta gartzetxoek eziketa* ta irakasketan.

Aldatu-behar bat, zuzendu-behar bat nabarmen agertzen da.

Zuzentze hori, oraingo eta hengo egoera honetan, egin ahal ote da gero? Zuzentze zehatz eta oso bat ez, beharbada, askatu ezinezko lotura batzuek dagoz egon be ta.

Baina kolejioen esku ez ote dago aldakuntza ta zuzenbideratze aundi bat? Baietz eta baietz esango geunke, esan be.

Hona hemen, zer eskatuko geunkioen gure Erriari dagozan Elizearen kolejio horreei:

Lehenengo: Irakurri daiela hauxe gutxienez:

Pio Amabigarrenaren 1945-ko Gabon deia eta 1948-ko azaroaren* 11-n egindako itzaldia. Joan Ogetairugarrenaren "Pacem in terris". Paulo Seigarrenaren "Populorum progressio".

Azken Kontzilioko: "Constitutio dogmatica de Ecclesia", 17. "Constitutio de Sacra Liturgia", 37, 119. "Constitutio pastoralis de Ecclesia in mundo huius temporis", 44, 53, 54, 55, 56, 58, 59, 60, 73, 86. "Declaratio de educatione christiana", 1, 3, 5. "Decretum de activitate missionali Ecclesiae", 8, 9, 15, 18, 21, 22, 40.

Horrezaz gainera, UNESCO-k ateratako agiri argi ta sakona. Eta beste zenbait* agiri ta artikulua: Esate baterako, "Escuela e idioma materno", Octavio Fullat (Cuadernos para el diálogo, julio, 1967). "Necesidad del bilingüismo en la enseñanza primaria" (Cuadernos para el diálogo, octubre, 1969).

aparte biziko dira ta sarri beste pertsona baten arrimuan.

Ezkontza sail honetan benetako diktadorea dauka Elizeak Estadu batzuetan, Espainian eta Italian esate baterako. Ba dira pertsona batzuek —bakoitzak bere sinesmenak ditu ta— Elizatik barik, zibiletik ezkondu nahi leukeenak; baina honetan ba dakigu zenbat oztopo ta eragozpen dagozan Elizearen eta Estaduaren aldetik. Benetan lotsagarria, hau pasatzea XX gn. mende* honetan zibilizaturik ei dan erri batean.

Baina puntu hau luzea da; ta obe da, urrengo artikulua baterako itxitea.

XABIER KINTANA

Bigarren: Ezitzaile ta irakasle guztiak, edo gehienak behintzat, bertokoak (ez lurrez bakarrik) izan daitezala, edo bertokotu —euskaldundu— daitezala.

Gatxa? Ametsa? Ezina? Ez al da, arazo garrantzitsuetan, gora jotzen, Probintzialagana, Jeneralagana edo danadalakoagana? Eta Elizeak Erri batez dauan artuemon eta zeregin aundi hau, ez al da garrantzitsu ta larria, garrantzitsurik eta larririk badago behintzat, aldatu behar dana aldatzeko eta eratu behar dana eratzeko? Batez bere, Kontzilio osteko azterketa ta aldaketa giro honetan?

Irugarren: Euskerea, ikasgai —asignatura— mailan jarri daiela. Zorionez, zeredozer egin da arlo honetan, askorik ez bada bere.

Laugarren: Legeak ixten deuten neurrian, ikaste batzuek euskeraz jarri daitezala.

Bosgarren: Ikasketatik kanpora, elizkizun eta otoitzak, Eukaristi batzarrak eta berbaldiak, antzerki ta jolasak, irakasle ta ikasleen arteko artuemonak euskeraz izan daitezala, zenbat ikasle euskaldun eta zenbat erdaldun diran kontuan artuta, euron numeruaren arabera*. Beste hau ahaztu barik: kolejio hori non dagoan, eta legearen aldetik euskeria dala galtzaile.

Gauza horreek gutxienez egiten ez baditue, ezin sinestu izango dogu, gure kolejioak Erriaren alde diranik, ezta Elizearen irakatsiekin eta gurariekin bat datozerik bere.

GADU

ANAITASUNA

BIZKAIA, Amabosterokoa, 2

Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasa.

Jabea: Kantauriko Frantziskotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.

Idazkilaria ta banakolaria: Bengoetxe, 33-b. Galdakano. Tel. 396 eta 397.

XVIII-gn. urtea. 181 zenb. 1970, Urtarrilak, 30.

D. L. Bi, 1.753-1967.

Inprimatzen dau: Imprenta IDEAL-ek, Galdakanon, Bengoetxe, 70.

LOPATEGUI



Hona hemen Lopategik "Gernikako Arbola" gaiari jarritako iru bertsoak (Maria Lurdes Iriondoren "Lin Pan Mendia" kantuaeren soinuarekin):

Gure arbola goratutzea
niretzat ez da nekeza.
Bere itzalean bizi naiz eta
hortan daukat interesa.
Naiago neuke neure odolakin
bardin mantendu al baneza,
mundua mundu dan arteraino
Iparragirren amesa.

Baina arbola gaixorik dago,
katez lotua, nekatzen;
pinu baltzakin inguratuta,
landarakaitik kezkatzen.
Bere irrintzia gorantza doa,
justizi pixkat eskatzen.
Gure arbola ez da osatuko,
baldin ez bada askatzen.

Iparragirren arbola il zan,
zu zagoz ia jausia.
Eta halan be aurrera doa
zure etsaien* auzia.
Errori* zaite, zapaldu etsaia
ta erein ezkur azia,
mantendu daiten belaunik belaun
zure izpiritu bizia.

MATTIN



Hona hemen Mattinek "Gernikako Arbola" gaiari jarritako bertsoetatik bat:

Arbola hori atxikitzen* dut
kasikan nere amatzat,
eta nunnahi agertuko naiz
leialki bere semetzat.
Euskaldun onak bertze gauzarik
hortaz ez dezake pentsa:
arbola hori izanen dela
gure amaren bihotza.

Eta "Aurtxo barriaren ama" gaiari beste bat:
Haurra* mundura eman duzu ta
eskerrak duzuz merezi:
Jainkoak daki zonbat zaituen
haur horrek sofriarazi.
Hori egiten duen andreak
zerua baitu merezi...
Bainan errezo ta gainezkoak
zuk euskaraz erakutsi.

Gernikako B

Bertsolariak eta euske- rearen batasuna

Gernikan, bertsolari saiaketako denboran, Abel Enbeita adiskideak ANAITASUNA aldizkariaren aldeko orritxo bat eskuratu euskun, mikrotik irakurtzeko.

ANAITASUNA aldizkariak euskera batuaren alde egiten eban lana aipatzen zan orritxo haretan; eta jendeari dei bat egiten jakon, bide batez, aldizkari horretara arpidetzeko*. Ez dakigu, deiak erantzunik izan dauan. Atsegin ez irakurri genduan orri ha; eta orduean bertan bururatu eta, denborarik ez izanez, isildu genduzan-pentsamentu batzuek argitaratu nahi ditugu gaur.

Orri ha irakurtzean, gauza bat bururatu jakun bat batean: nekez aurkitu eitekela Gernikako bertsolari bilkura* ha baino une egokiagorik, euskerearen batasuna aipatzeko, eta batasun horren beharizana ikusteko.

Frontoi erdian, jendeari mintzatzen*, bost gizon aurkitzen ginan: bost euskaldun, eta bostetatik lauek euskera desbardina erabiltzen genduan. Mattinek lapurtarra, Xalbadorek baxenafartarra, Lopategik eta Azpillagak bizkaitarra (ez dakigu bardina ala desbardina), eta nik barriz gipuzkoarra. Zelako nahaste-borrastea! Mahaiburuko ginan bost gizonetatik lauek euskera desbardina!

Norbaitek esan leike, euskerearen aberastasuna dala hori. Beharbada, aberastasuna izango da; baina, gure eritxiz, egia dana da, euskera mintzatuak (guri interesatzen jakunak) ezer gutxi irabazten dauala gisa* horretako aberastasanarekin.

Guk, zihur, nahiago geunke txiroagoa balitz eta euskaldun anaia guztion artean izkuntza bakarra egin, danontzako bardin.

Gernikako frontoian argi ta garbi ikusi genduan, euskereak daukan batasun horren beharra.

Ez al zan penagarri, Xalbadoren bertso zoragarri batzuek ezin ulertuz gelditzea, euskereak daukan edo sufritzen dauan desbardintasun horregaitik? Xalbadoren bertso bat baino gehiago, behar bezala txalotu barik gelditu ziran, entzuleak, bertsoak eukan giharra edo mamina ondo ulertu ez ebelako.

Bertsolariak asko egin leikee batasun horren alde. Jandantik* ikusten doguna da, bertsolari guztiak, gipuzkoar nahiz bizkaitarrak, lapurtar zein nafarrak, danak alkarrekin ondo ulertzen dirala, nahiz eta oraindino izkuntza desbardina izan. Lopategirentzat sekreto gutxi dauka Xalbadoren euskereak; eta bardin, Mattinentzat Azpillagarenak.

Guk uste eta opa bezala, bertsolariak Euskalerriko bazter guztietara sakabanatzen badira, emeki-emeki, poliki-poliki, jendea ohituko da gure edozein bertsolari ondo ulertzera, dala lapurtar nahiz baxenafartar, dala gipuzkoar zein bizkaitar.

DR. HERNANDORENA

Nor da Bertsolaria?

Beharbada, honetaz ez dogu asko pentsatu; ta nire eritxia emon behar dot. Bertsolari izatea drama bat da, drama sakratua, erriak sakratutakoa, hain zuzen bere. Bere jaiotetxean asten da: "Gure errira bertsotan etorri zeintezan gura geunke".

Bere barrena otzikaraz murgiltzen da; kilikili batek jolastuten dau gora ta behera bere bizkarrean. Baina bertsolaria erriari zor jako, ta baietza emoten dau.

Zelakoa da erri hori? Ze problema bizi ote dau? Ta zer nahi? Asmatzen gatx diran sentimentu ta arazoak. Eguna eltzen da, eta egunsentian bertsolaria errira. Giro ezezagun eta, beharbada, faltsoan dago. Garai sakratua

XALBADOR



Hona hemen Xalbadorek "Euskera eta baserria" gaiari jarritako bertsoak:

Haur bat galtzea tristea da, baina bere sehaskan galtzea?
Hori dela bai negargarria,
hori gure oinazea.
Eskuara gure familietan
kartsukiago sartzea...
bila dezagun baserria dun
horrek bere ohantzea*.

Baserrietan eskuara galdul
alferretan bai gabiltza!
Alferrik gure kantuak eta
sermolariaren hitza.
Baserrietan eskuara gabe,
nun mintzairaren bizitza?
Baserri horrek iduriko du
Kristo gabeko eliza.

AZPILLAGA



Hona hemen Azpillagak "Gernikako Arbola" gaiari jarritako bertsoetatik bat:

Gernika aldeko arbola zarra,
jaso nai zaitut gorantza.
Zure ondoan dabiz euskaldun
bertso, abesti ta dantza.
Ekaitz gaiztoak izan dituzu,
ta egin duzu balantza;
baina oraindik ugaitz zarra da
euskaldunen esperantza.

Esta "Bertsolaria ta euskera" gaiari jarritako bertso bi:
Bertsolari ta euskera dira
baten eskuak bezela.
Askok sinesten ez badu ere,
nik pentsatzen dot honela.
Euskera degu mamin sakon bat,
eta gu gara azala;
esan nai nuen, hau galtzen bada,
gu ere galdu gerala.

Euskerarekin hortxe gabiltza
batera eta bestera.
Esaten euskun: Bigun nago ta
etorri neri eustera.
Len bigun xamar egon bada ere,
gogortuko da ostera;
bertsolari bat dagon artean,
ez da galduko euskera.

rtsolari Jaia

Jaiaren elburuak

Sekretoa ez da. Danok jakin dogu. Eta ikusi, itxaron, ekin eta sentidu. Danok genkian, bertsolariak ez eutsola erriari erantzuten. Fallo bat egoala; eta zuzendu beharra, derrigorrezkoa zala. Erria ez zan bertsolariengana eltzen, ez zituan ulertzen. Edo bertsolariak ez eban erria ulertzen, ez eutsan bere egoerari kasurik egiten. Erria, afizinoa galtzen joian, Bertsolaria, ostera, ilusinoa galtzen. Horregaitik, bertsolaria poztu behar zan; erriari, barriz, erantzun. Bertsolariari erriko gaiak jarri eta erritarren artean bertso gosea sortu. Erria bertsolaritu ta bertsolaria erriratu.

Honetarako jai batzuek behar ziran, bertsolaria ta erria alkarganatuko zituenak. Jaiok bertsolaria txaloz poztuko eban eta erria bertso jatorrez. Pausuak arin emon beharra egoan, agonia osatzeko aina arin, baina baita ahal zanik sakonen eta errikoien bere.

Lehenengo pausua Gernikan emon da. Goizetik asita,

eltzen da, garai urduria*. Jendea, bertsolariaren zain. Zer abestu? Zenbat? Bota dau bertso biribila. Jendea isilik. Bertsolariaren barruan korapilo bat sortzen da: zer gura ote dau erriak? Zer esan behar deutsan nik? Bildurra, kasik lotsea, ta zer esan ez dakiala. Erriak poztuten badau, poza, nasaitasuna, ilusinoa... Baina, bere barruan, erriak nabaritzen* ez dauan krisis bat.

Amaitu dira bertsoak. Jaitsi dira estradutik eta, inbitazinoz, ba doaz tabernara. Eta betiko leloa: Bota eik bertso bat.

Baina beharrezkoa ote da? Ala kapritxoa? Nire bertsoa bost kiloko mailua balitz...

A. ENBEITA

bertsoa zan ahomihineko arnasea: bertsolariak lehenengo aldiz Gernikako pelota toki ederrean. Eta zelako bertsolariak! Bai, bertsolariak Gernikan izan ziran eta euren oinotsa ez da erraz ahaztuko. Ez da erraz ahaztuko Lopategiren maisutasun sakona, Azpillagaren plazatasun egokia, Xalbadoren bihotza ta bere bertsoen kilikilia, eta Mattinen "matintasuna", Mattinen alaitasuna, erria irabazteko irribarrea ta juradua, pentzako bertso sakona. Entzuleen txaloak eta dehadarrak beste jaialdi bat eskatzen eben. Jai Alaiko ormak bertso ta txaloen arribizi* egin ziran, eta bertsolariak erriaren deiaren oihartzun*. Milaka lagun eta milaka esker.

Hernandorena jaunaren itzak eta euskera garbia: bertsoak zirala zirudien.

Lau bertsolari aundi, ta laurak ondo. Epaitzeko era barria ta, dirudianez, erriaren gogokoa. Juez bakoitza bakarrean, bere mahaian. Bertsolariak ez ekien ze puntuazino emoten eutseen; eta juezak eurak bere, ez ekien beste juez lagunak ze neurriko epaia emoten eban. Bakoitzak bere epai neurria, bertso bakoitzeko, entzuleei agertzen eutsen, numerua ohol txatal baten ezarrita; eta entzuleei begira egoan tablero baten emoten zan juez guztiena, bat eginda.

Azkenez, danak ikusiz, eta oraindino ez bertsolariak eta ez epaimahaikoak ez ekielarik, erabagia irakurri zan: Lopategik, 387 puntu. Azpillagak, 365. Xalbadorek, 360. Eta Mattinek, 353. Begoz zorionean laurak, Erriaren zerbitzurako izan diralako. Jarrai zuen etorkizun sakonaren emoitza ugariak zabaltzen. Eta entzuleei, eskerrik asko zuen erantzunagaitik.

ABEL

Guzti hau aztertuta gero, puntu batzuei buruz zenbait aipamen gura geunkez egin.

1. Lau urte honeetan, erriz erri ibiliak gara Euskalerrian zehar. Frontoi, enparantza*, teatro, probaleku, saloi eta beste izan dira gure agerlekuak. Asieran jendeak gutxi ezagutzen ginduzan, normala dan bezala. Orain, oster, bestera gertatzen da. Asi ginanean, euskal kantaririk bakan agertzen zan; funtsa* ez egoan errime oraindino; orain, barriz, sendoago doa eta maila batean dago. Lehen ezezaguna zalako, ezagutzera emon behar zan; eta orain bere jarraitu behar dau ezaguna izaten noski*, baina bide sakon, obe eta iraunkorragotik. Lehen edozein leku ona bazan jaialdi bat emoteko, orain askok horrela izan behar badabe bere, beste askotan gauzak ahalik eta obetoen egin eta emon behar diralakoan gagoz. Asieran, guk eskatutako dirua gutxi bazan, gero gauzak obeagotu izan behar ditugunaren arabera*, ahal dan beste eskatzen joan gara (kontuan euki "ahal" esaten dogula). Baina sekula ez dogu ezta leku bat bere diruaren arazoagaitik utzi. Betor horrelakorik esan leiskiguna.

2. Pentsatzen dogu, gure erriak, inoiz baino gehiago, luzera doazan kultura moldeak behar dituala; eta ez, txakurraren gauerdiko estulak bezala, egunsentian suntsitzen* diranak. Baina kultura moldeak iraunkor eta sendoak izan daitezcan, lana egin behar dalakoan gagoz, eta asko gainera! Gure antze*-izkuntza guztiak ikastea: soinu, itz, poesia, ritmo eta musika tresnak dituen tankera bereziak, honeek bitartekotzat erabiltzeko; iduritzen baitxaku*, gure erriak sortu dituan gauzak, erritar bateri egokienak izango jakozala, eta bardin, erritar honek horreen bitartez egindakoa sakonkiago erriaren baitan* sartuko dala. Gainera, beste eskualdeetan* egiten dituen gauzen barri izatea: diskoak, liburuak, aldizkariak, eta abar; bestalde, sozial gertaerak sakonki aztertzea, eta horretarako behar dan denborea, liburuak, eta abar eta abar. Ikusten danez, lanik asko ba da egitekoa; eta, beraz*, lana dan ezker, ordaindua behar litzakelakoan gagoz.

Guk, gaur egun, lan honen 100-eko 10-a baino askoz bere gutxiago egiten dogu; eta ez, nahi ez dogulako, posibilitaderik, denborarik, dirurik eta abar ez ditugulako baino; ots*, gu edo beste batzuek egoera egokian behar ginake egon, gauza horreek danok egin ahal izateko. Ez bagagoz, beti bezala, "amateurregiak" garealako da.

Txantxetako, eta ez hain txantxetako gauzetan (jostaketak, pelotea, zinea, futbola, dantzatokiak, edariak eta mila gauza gehiago), hainbeste diru gastatzen dan errian, guzurre dirudi euskal kantarien aurka jardutea, jaialdi bategaitik behar leukeen erdiaren erdia eskatzen (?) dabelako, edo sarrerea zortzi edo hamar ogerleko kobratzen dalako. Gureak gutxiago balio ote dau ala? Danak merezi eta behar dabe euren lanetik bizitzea; baten lanarekin, norberaren nortasuna aberastuten baita*, eta gizartearena bere bai, eta aitzitik*.

Antze* egitea lan bat da, giza-eginkizun bat, erriak behar dauan zerbait; ez beharrezkoena, baina, gizakumeak lehenbeharrak betetzen dituan ondorenean, beharretariko. Eta antzea* sortuko bada inon —antze landua, sakona—, haren egiteak bizi bat osoki behar dau. Hau da, artisteak profesionala behar dau izan; ez profesionala dirua irabazten, lan egiten baino, eta hau besteei erakutsi eta irakasten. "Amateurtasuna", sentimentu onuragarria da eta beharrezkoa; baina honen bidea ez da luzea izaten, eta ez da inoiz gai batean benetan sakontzen.

Kalte bi ditu honek: ezer barririk ez sortzea, eta gizonak ezer sortzen ez dauanean, aspertu egiten da, edo makina bat bihurtzen; eta edozein arazo xingleagaitik —ezkontzea, adina* eta abar— bere kultura ekintzea baztertu egiten dau. Bestetik, jakite sailean dabilen jendeak, lan horreek gutxitan artzen ditu bere bizitzarako lehenengotzat, garrantzitsuen gisan*. Beste eguneroko eginkizunak ixten deutseen tartek erabiltzen ditue kultura ekintzetarako; eta holan, jaunak, ezin daiteke axalkeriatik atera.

(Bigarren zatia, urrengo zenbakian)

Euskaldun orkesta bat: OINARRIAK

Aurtengo maiatzean asi ziran "Oinarriak" taldekoak jendearen aurrean abestuten; eta hain zuzen be, ANAITASUNA argitaratzen dan Galdakanoko Bengoetxe auzoan.

Hain epe* laburrean, 40 jaialdi eskaini* dabez, gehienak berbenetan, Egia esan, beharrezkoa genduan berbenetara euskerea eroatea. Orain ilabete batzuek arte, berbenetako abesti guztiak kanpoko izkuntzetan kantatzen ziran; baina orain, zorionez, "Oinarriak" eta beste orkesta batzuek euskerea eroan dabe bai berbena ta bai dantza tokietara.

Orain, neguan, "Oinarriak" taldekoak gutxiago jardungo dabe; baina ez dira geldirik egongo: abesti barriak gertatuko dabez, eta lehenengo diskorako antolakizunak egin.

Talde hau osotuten dabenak, Bilboko gazte honeek dira: Xabier Coello, Iñaki Alzibar, Erramon Fernández eta Jon Abaunza. Eurekin dago Jon Etxebarri, abesti askoren egilea.

Asierea beti da gatxa. Gastu asko egin behar (istrumentu on batzuek erosi dabez, euren orkesta hau besteen pareko izan dadin), repertorio on bat gertatu behar (ogetamar abesti inguru), dana euskeraz; baina, dana dala, pozik dagoz, leku guztietan ondo artuak izan diralako. Diru kontuan be ondo urten dabe, nahiz eta eurak, joteagaitik, gutxi kobratu.

Eurekin artuemonik euki nahi izatekotan, hauxe da Xabier Coello-ren zuzenbidea: Santuchu, 20, 4.º A (Bilbao) Telefonoa: 333385.

Zorionak, ba, "Oinarriak" taldekoei euren lehenengo urtebetetzean; ta jarrai gogor aurrera, euskerea zabaltzen.

XABIER GERENO

Salomon

Bilbotarren artean, ez da bapere gustatu "Aránzazu" aldizkariaren azken numeruan agertu dan Salomonen lana. Batek esan deust, ea ez ote dan Salomon hori Opus Deikoren bat, Aita frantziskotarren jantzi beneragarriarekin disfrazatua. Nik ez dakit Salomon nor dan, ala frailea ala prakaduna; baina oker dabil. Zorionez, Eliza Katolikua gaur beste bide batetik ibiltzen asia da, Kristo zigortuaren, preso ta ilaren urratsei* jarraituaz.

150 urte, Antonio Trueba jaio zala

Antonio Trueba, 1819-ko abenduaren 24-an jaio zan Bizkaiko Montellanon. Berak idatzitako libururik ospetsuena, "Libro de los Cantares" da. 1862-an, Gernikako Batzarrak "Bizkaiko Kronista" izentatu eban. "El Noticiero Bilbaíno" egunkarian asko idatzi eban. 1889-ko martxoan il zan. Bere estatua, Bilboko Albia Jardinetan dago.

Deustuko Unibersidadea

Deustuko Unibersidadea, Bizkaiko ikastetxerik zaharrenetarikoa ta ospetsuenetarikoa da.

Jesusen Lagundikoak zuzentzen dabe. Ikastetxe honetan ikasi dabenen artean, sarritan aurkitzen doguz familia izen berberak; gizaldirik gizaldi, gurasoak, semeak, lobak bertora ikasten etorri dira ta.

Etxe honetan ikasketak egitera sartu ahal izateko, batxileratu guztian gutxienez 7,5 bat euki behar da, batez beste.


Bizkaiko enpresario askok, hementxe egin ditue euren ikasketak; esate baterako, Ikaza, Agirre, Gaitán de Ayala, Zulueta, Kareaga, Delclaux, Areitio, Goioaga, Fernández Villora-k, eta abar.

Lehenago, "Deretxoa eta Zientzia Ekonomikuak" ikasten ziran. Orain, "Zientzia Enpresarialak" be ikasten dira.

1967-tik 1968-rako ikastaroan bertan egondakoak, honantxe banatzen dira: Bizkaitarrak, 188 (170, bilbotarrak). Giputzak, 34 (24, donostiarrak). Arabarrak, 15 (12, gazteiztarrak). Nafarrak, 27 (11, iruñarrak). Espainiako uriburuetakoak, 73; eta errietakoak, 31.

ERRAMUN

Euskalerriko mapea



Tolostuta: 50 peseta

Tolostu barik: 60 peseta

Egilea: **CINSA** Av. Ejercito, 18 3.º B

Bilbao

ONGARRI Pentzuak

SARR - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua.

Burubako egina, alperreko ekina.

ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.

ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:

ONGARRI, S. A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Teléfono 11



IMPRENTA IDEAL

Bengoetxe - GALDAKANO

FUNCOR, S. C. I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

Trituradora - Errota - Naastale - Zerra - Uraga - Uraska

Europako aurrerapenik onenak, emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta FUNCOR

ELORRIO - Teléfono 114



I. BERBAK

(Ale honetan izartxu bategaz agertzen diranak)

Bizkaierazkoak

ADABU, adabaki, *remiendo*.
 AINA, beste.
 ARMADA, *ejército*. (Berba barria).
 ARPIDETU, *suscribirse*. (Berba barria).
 ARRIBIZI, oihartzun, *eco*.
 ARRO, *cuenca de río*.
 BAITAU, bait dau, dau ta. (Forma barria).
 BAITXAKU, bait jaku, jaku ta. (Forma barria).
 ELERTI, *literatura*. (Itz barria).
 ERAKUNDE, egitura, egitamu, *estructura*. (Itz barria).
 ERDIKIN, erderazko *semi*.
 ERREKARRO, erreka arro, *cuenca de río*.
 ERREN, koixu.
 ESAKA, *diciendo, hablando*.
 EZIKETA, edukazio.
 IRAULTZA, matxinada, *revolución*. (Itz barria).
 JOIAZANEAN, joaten ziranean.
 KADEN, *decaído, melancólico*.
 LEHIAKETA, *concurso*.
 OLA, lantegi, fabrika.
 URDURI, artaga, sosegu bako.
 URIGINTZA, *planificación urbana*. (Itz barria).

Euskera bateratukoak

ADIN, edade.
 ALEGIA, hau da, *es decir, a saber*.
 AMETS, ames.

AMILDU, *precipitarse*.
 ARI IZAN, jardun.
 ASTEARTE, martitzen.
 AZARO, zemendi, *noviembre*.
 BAITA, bait da, da ta.
 BAITAN, barruan, ariman.
 BAITIRA, bait dira, dira ta.
 BERAZ, hori dala ta, horregaitik, *por consiguiente*.
 DATZA, etzanda dago, *yace*.
 EPE, *plazo*.
 ERORI, jausi.
 ESKAINI, eskini, eskeini, *ofrecer*.
 ETSAI, arerio, *enemigo*.
 FUNTS, *fondo, sustancial*.
 GISA, modu.
 HAUR, ume.
 LAUTATU, aukeratu, elejitu.
 HOTS, hau da, *a saber*.
 IGANDE, domeka.
 IGORRETA, *Yurreta*.
 KUTSU, *sabor, resabio*.
 LARUNBAT, zapatu.
 MEMENTO, momentu.
 MENDE, gizaldi, sekulu.
 MINTZATU, berba egin.
 NABARITU, *advertir, percibir*.
 ODEI, laino, *nube*.
 SUNTSITU, *desaparecer*.
 UGAO, *Miravalles*.
 UHIN, olatu.
 URRATS, pausu.
 ZENBAIT, batzuek.

Beste euskalkietakoak

AHULEZIA, makaltasun.
 AITZITIK, *al contrario*.
 ANTZE, *arte*.
 ARABERA, arauera, *según, conforme*.
 ARE, oraindino.
 ATXIKI, gorde, euki.
 BILDUMA, kolezino.
 BILKURA, bilera, *reunión, concentración*.
 EGUNKARI, eguneroko periodiku.
 ENPARANTZA, plaza.
 ESKUALDE, *comarca*.
 GERLA, gerra, gudu.
 GUTXIETSI, *apreciar poco, desdeñar*.
 ISKANBILA, atralaka, *pendencia, barullo*.
 JADANIK, erderazko *ya*.
 MENDEBAL, sartalde, *occidente*.
 NOSKI, *seguramente, ciertamente*.
 OHANTZE, abla.
 OIHARTZUN, *eco*.
 OROEKIKO, *público*.
 SOEGILE, so egiten dauana, *observador*.
 ZALANTZA, ezbai, duda.

II. IDAZTEKO MODUA

Txarto:

Nik ez dakit Salomon nor dan, edo frailea edo prakaduna. Maisu bakoitzari tokatzen jakoz 40 ikasle baino gehiago.

Ubidea Bizkaiko erririk gorengoena da, ta baita bere otzena. Baita be nazinoen burukoikeria.

Ondo:

Nik ez dakit Salomon nor dan, ala frailea ala prakaduna. Maisu bakoitzari, 40 ikasle baino gehiago tokatzen jakoz. Edo: 40 ikasle baino gehiago tokatzen jakoz maisu bakoitzari. Ubidea Bizkaiko erririk gorengoena da, ta baita otzena bere. Baita nazinoen burukoikeria be.

Zornotza

Erriko preminak

Zornotzan, lehen mailako irakaskintzeak, Estaduaren eskuetan dagoanak hain zuzen bere, memento* garratzak sufritzen ditu. Berrehun ume izango dira, eskolara joan ezin leitekezanak; eta ikasten dabiltzan 490-ak, ez dabe giro onik euren ikastaldietarako.

Egin daigun azterketa labur bat. Estaduaren ikastetxea, Primo de Riveraren denboran egin zan. Lehengo sei ikasgela ederrak, orain amabi ikasgela bihurtu dira: neska-mutilentzat iruna. Lehengo zerbitzuak (komunak, eskolako zelaia, eta abar) txikiegiak geratu dira dabiltzan ikasleentzat. Etxeari berari be, zahartzaroko akatsak sortu jakoz: itoginak, komunen gainezkaldiak ta, garrantzitsuena, lekuri eza. Maisu bakoitzari, berrogei ikasle baino gehiago tokatzen jakoz.

Ikastetxea bete beterik egoan ezkerro, beste ikasgela bi irigi ziran, Alondigea egon zan tokian. Ikasgela biok, asieran, sei urtetatik beherakoentzat izan ziran; baina laster, probisionalki, sei urtetatik gorakoentzat be izan ziran, nahiz eta probisionaltasun hori betikotasun bihurtzeko bidea eroan.

Adabu* honeek erantsitearren, problemea gordindu egin zan; eta Monjanean beste ikasgela bi artu behar izan zituan Aiuntamentuak errentan. Zoritxarrez, arrakalaz beterik dagoan gauzeari, ezin leitekioz adabu gehiago ezarri. Horregaitik, Aiuntamentuko Irakaskintza Komisinoak, Diputazino ta Estaduaren laguntasuna lortuta gero, Larra aldean lurra erosi ditu, bertan 40 ikasgelako ikastetxe bat eta bigarren mailako istituto bat egiteko asmoz.

Etorkizunari begira, soluzinoa dirudi. Baina, edifizio horreek altzatzen diran bitartean, nora joango ote dira gure umeak? Datu honeek, eskoletako Zuzendariak emon deuskuz; bere ustez, etxe prefabrikatu batzuekin leundu leiteke auzia. Halan izan dadila.

ESPINOSA

EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiaren egontokia barriztatzeko diru laguntza:

Central Lechera "BEYENA".....	25.000
J. Z. (Durango)	250
ANAITASUNA	1.000
Manufacturas Lasuen....	15.000
J. L. L. (Abadiano)	1.000
Guztira	42.250

ARRATIA (2)

Arratia historikuko erriak banan-banan:

Ubidea

2,97 km.² ta 253 bizilagun. Araba aldera dago erri hau; ta, hain zuzen bere, Billerle edo Gomutiano aldera ta Gazteizera jokera gehiago dauka, Barazartik iparraldera baino. Erria, euskalduna izanik, erdalduntzen doa, Elizearen jokatibide eskandalugarriari esker. Itsaso nibeletik 581 metro gorantz, Bizkaiko erririk gorenengoa da, ta baita otzena bere. Emakume bat dago erri honetan alkate.

Zeanuri

67,26 km.² ta 2.023 bizilagun. Bere auzoak: Altzusta, Artzuaga, Asterria, Iburguen, Ipinaburu, Ozerinmendi, Undurraga, Uribe, Plazea ta Elixaldea. 1860-an, 2.551 bizilagun eukazan; beraz*, jendea urritu egin da. Baserri ekonomiari lotuta dago, nahiz eta industriarako toki aukeratuak euki. Barazar aldean, Zubizabala erri-basoá dauka, Bizkaiko ederenetarikoak; ta baita Gorbea alderantz bere, ba ditu erri-baso ederrak. Zulaibar aldean, Elizearen ardurapean, Eskola Profesional bat dago, Arratia guztirako.

Areatza

9,06 km.² ta 1.384 bizilagun. Bere auzoak, uriburuz gainera: Landairu ta Uparan. 1338-an Haroko Jaunak uri legez sortu eban, Areatza deitzen jakon tokian; eta Villa de Haro jarri utson izena. Hortik datorkio Villaro izen arrotza. Arratiako uri bakarra, orainarte bera izan da erririk ospetsuena; baina, azkenengo urteotan, bizilagunetz urritu ta pixka bat atzean gelditu da. Diputazinoko urigintzan*, Barazarko bidetik gorantz eta Zeanuriri moztuaz, lur muga obeagoak eskatzen dira Areatzarentzat, erri honek be desarroiloa euki daian.

Gaztelu-Elexabeitia

12,41 km.² ta 889 bizilagun. Bere auzoak: Bildosola, Elexabeitia, Esparta, Gaztelu, Larragoiti, Sarasola, Ugarte ta Arteaga (erriburua). Iturrizak ederto azaltzen dau erri hau, esanaz: "En el territorio llamado Arteaga, circuido de montañas, tienen situación en bella planicie dos repúblicas unidas en lo temporal". Gaztelu ta Elexabeitia dira "errepublika" biok. Lehenengoak eliza barria dau, eta bigarrenak oso polita ta originala. Arratiatik Nerbion arrarako* bidea, Zeberiotik zehar, erri honetatik igaroten da; ta egokeraz, eskualdeko* erririk erdikoena da, duda barik. Baserri ekonomiari lotua; baina, Bildosola aldean, industria ugari jartzeko toki egokiduna. Hemen bere, emakume bat dago alkate.

Zeberio

47,87 km.² ta 1.967 bizilagun. Bere auzoak: Ametzola, Arkulanda, Aresandiaga, Argiñano, Ariltza, Barbatxano, Gezala, Ibarra, Olalzar, Solatxi, Uriondo, Santuola ta Zubialde (erriburua). Erri honek, "territorio ceberiano" ta "anteiglesia de Santo Tomás de Olabarrieta" izenak euki ditu. Errekarro* bat da erri hau, mendiz inguratuta; ta bizilagunetz urritu egin da, baserriak utsituten doazalako. Ugao* ta Basauri aldera lar jota dago Zeberio, bere anaia arratiarra kana jo beharrean; baina, honetarako, baserri-ordenatze ta estruktura-barritze bat beharko dau, eta industria berezi baten ekonomia indartsu bategaz jabetu. Beharbada, etorkizun horretarako ondo letorkioz "Santo Tomasen bienak", hainbeste miloi alferrik galtzen dagozanak, erri-ondasunak baitira*.

Arantzazu

3,78 km.² ta 329 bizilagun. Bere auzoak: Arantzazugoitia, Olarra, Zalbide ta Arantzazu-Zelaia (erriburua). Igorreren alboan, beronen ekonomiari lotua dago, nahiz eta erri-be-

rezitasun batzuek euki. Serra ta lantegiren bat bere, ba dauka. Askok ez dakie, Oñatiko auzoaz gainera, erri hau eta baita Gordexolako Zubiate taldeko auzo bat be, Arantzazu izenekoak dirala. "Jumelage" bat egin ote leikee irurak?

Dima

62,22 km.² ta 1.724 bizilagun. Bere auzoak: Aroztegieta, Bargondia, Bikarregi, Indusi, Intxaurbizkar, Lamindano, Oba, Olazabal eta Ugarana (erriburua). Orain ehun urte, 2.223 bizilagun eukazan; beraz*, atzerantz doan erria da. Baserri ekonomiari zeharo lotua, bere baztertasunagaitik-edo, eskualdeko urigintzan* industria barik itxi dabe. Behinolako Gazteizerako trenbidea nahiz gaurko autopistearen adarra bertatik igaroko balitz, beste burpil bat artuko leuke erri honek; baita Durango aldera, Mañarira jota, Iñungandik zehar antzinako bide zaharra gaurkotuko balebe bere. Entzufetsuak dira Baltzolako kobak eta Jentilzubi izeneko berez egindako zubia. Bertako semea izan zan Simon Bernardo Zamakola, Abandoko portuaren asmatzailea, ta joan dan mendearen* asieran "zamakolada" izenagaz ezagutzen dan iraultzea* sortu ebana.

Igorre

17,52 km.² ta 2.163 bizilagun. Bere auzoak: Basauntz, Garbe, Loiate, San Juan, Elgetzua, Urkitsu ta erriburua. Arratia eskualdean*, gorantz gehien doan erria. Azkenengo kontaketea orain lau urte egin zan ezkeroztik, lagunez polito ugari ta, baita industriaz bere, Arratian olarik* gehien daukan erria berau baita*. Erri-zerbioak, bertan ugarien: ikastetxe, "extensión agraria"-ko agentzia, baserri kooperatiba, bankuetxe, gasolina ornitegi, ostatu, eta abar. Arratiako uriburu izatera doa; baina, beharbada, urigintza* falta batekin, uri itxura gutxigaz. Bilbotik 22 kilometrorra, industriaz gehitu arren, kanpotarrez bakarrik ugartzeko arriskuan dago. Bertakoak, burgestuaz, uri nagusira doaz, eskualdeko zentro sendo baten faltaz. Torretxe asko daukaz; hantxe dagoz Zumeltzu, Igorre, Igorrebasa, Urkutsu ta beste batzuek: Erdi Aroko Oñaz-Ganboarren anai burruken ezaugarri.

Lemona

15,97 km.² ta 3.022 bizilagun. Bere auzoak: Arraibi (erriburua), Arraño, Durandio, Elorriaga, Gandarias, Lemorieta ta San Iñazio. Bedia izeneko merindade erdikinekoa*; beraz, Arratiari lotua, kondairaz, euskalkiz, geografiaz eta izakeraz. Eskualdearen atea dogu, Arratia ibaiak, erriaren zati batetik igaro ondoren, bere erdian Ibaizabal ibaiagaz bat egiten dau, beronen ibarrak beharantz Bilbogaz eta gorantz Zornotzagaz komunikatuaz. Bertan dago Bizkaiko zementu ola* bakarra. Industria honeri lotua dago gehienbat erri hau; lemonarrei euren izerdia, etxe ta bazter guztiak zementuz koloratzen jakez. Lemonatxa, anai arteko burrukan hainbeste odol isuri zan tokia, oso entzuna da Euskalerrri guztian.

Bedia

16,34 km.² ta 1.317 bizilagun. Auzoak: Barrueta, Ereño, Ereso-Ugarte, Murtatza, Utxarain eta Bedia-Elexalde (erriburua). Bere "foru-alkatea", Arratia merindade guztkoia zan. 1858 gn. urterarte Lemonaren azpian egon zan, Kolazino izenagaz; gaur bere, holantxe deitzen deutsoe alboko erriak. Bilbo Aundiaren ertzean, Galdakanoko Usansolo auzo industriatsuari ikututen, eta Ibaizabal ibaiarta bertatik igaroten dala, geroago ta ola* gehiago jasoten doaz bertan. Baserri asko, halan ta guztiz bere; baina gaurkotasun gutxigaz.